

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Frantziako enbaxadorearekin `Bachibac` esperientzia pilotua Nafarroan ezartzeko aukera aztertu du

Nafarroan dauden Frantziako enpresak ezagutzeko bisita egiten ari den Bruño Delaye-k interesa agertu du, Foru Komunitateko elikagaien nekazaritzako sektorean inbertsioak egiteko aukerei buruz

Miércoles, 18 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Frantziak Espainian duen Bruño Delaye enbaxadoreari harrera egin dio gaur goizean, Nafarroako Jauregian. Lehendakariak enbaxadorearekin Nafarroan [`Bachibac`](#) esperientzia pilotua Nafarroan ezartzeko aukera aztertu du.

2008/2009 ikasturtetik [Espainia](#) eta [Frantzia](#)ko ikastetxe

elebidunetan eskaintzen den

batxilergo bat da, eta titulazio bikoitzaz gain, Batxiler espainiarreko titulua eta Baccalauréat frantsesarena lortzeko aukera ematen du.

Bilkuran izan da ere, Hezkuntzako kontseilari José Iribas. Aldiz, Nafarroan kapital frantseseko enpresak bisitatzen ari den enbaxadorearekin batera, Bilboko Frantziako kontsul nagusi Didier Ortolland, Nafarroan eskumena duena, eta Frantziako enbaxadako bigarren kontseilari Virginie Bioteau ere izan dira, besteak beste.

Bilkura frantses hizkuntza eta kultura sustatzearen inguruan oinarritu da, nahiz eta interes ekonomikoko beste gai batzuk ere jorratu diren.

Hala, enbaxadak bere hezkuntza-eskaintza ezagutzera emateko interesa helarazi du frantsesa eta beren herrialdeko kultura ezagutzeko, eta Nafarroako Gobernuari gonbita luzatu dio atzerrian sartu eta bertan egonaldiak egiteko eskolaz kanpoko jarduerak susta ditzan. Nafarroako ikasleek ondoko herrialdean Lanbide Heziketako praktikak egiteko aukera ere badago.

Halaber, bi aldeek Nafarroako egoera ekonomikoa eta enpresa-sarea aztertu dituzte eta, zehazki, inbertitzaile frantsesei elikaduraren sektoreak zer aukera eskaintzen dizkien.



Nafarroako Lehendakaria eta Iribas kontseilari, Frantziako enbaxadorearekin eta gainerako ordezkariarekin.